

**OSTEGUNA**

2019/06/13  
7. urtea, 1.074. zenbakia  
107.6 fm  
[www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)  
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**Larraulen eta Berrobin alkatetzak hartuko ditu PSE-EEK**

Berrobin, zazpi zinegotzietako batek uko egingo dio karguari // 5

Ibarrako Gazte Zulo eta Belabieta prest dira, udako aisialdia jardueraz betetzeko // 4

# Gaur emango diote azken agurra, Joxe Mari Gorrotxategiri

Gaixotasun luze baten ondoren zendu da, euskal gozogintzaren erreferentzia bilakatutakoa; Santa Maria elizan izango da hileta, 19:00etan // 2



ENERITZ MAIZTEARRI

## «Harrapakari naturalak dira txoriak eta saguzarrak»

### **BEÑAT DIAZ YAÑEZ** ORNITOLOGOA

Aranzadi Zientzia Elkartearekin, Biobox proiektu pilotuan lanean dabil ikaztegiarra, sagasti eta mahastietan betidanik egon izan diren izurriteak era biologikoan kontrolatzeko proposamen berrien bila // 6

### **800 mendi lasterkari elkartuko ditu igandeko hitzorduak**

T3T eta T2T probekin batera, Gazte Lasterketa izango da, estreinakoz; Sarah Ugarte eta Iñaki Olano lasterketa gozatzerari irtingo dira // 7



## **IBARRAN EROSTEAK SARIA DAUKA**

Kanpainan atxikitutako dendetan gastatzeko 100€ko hamar sari



# Joxe Mari Gorrotxategi gozogilea zendu da

Gaixotasun luze baten ondoren, asteartean hil zen, 90 urterekin, eta gaur izango da hileta elizkizuna; Tolosako Babarrunaren Kofradiako lehen lehendakaria izan zen

## Josu Artutxa Dorronsoro

«Euskal kulturarentzako galera handia» dela dio Juan Manuel Garmendia Otegi Kofradia Gastronomikoen Elkarteko lehendakariak. «Intentsitate handiz bizi zituen bizitzaren alderdi guztiak. Bera ezagutzeko aukera izan dugunok, jakitun gara aukera guztiak ikasteko eta gozatzeko baliatu zituela; beti izan da oso militantea eta oso aktiboa. Bere ibilbide pertsonalean eta profesionalean zehar izandako umorearekin eta laguntasunarekin garatzen gara».

1929ko erramu igandean jaio zen Joxe Mari Gorrotxategi Pikasari, eta lau anaietan zaharrena zen bera. 1957an, Mirentxu Peralesekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba izan zituzten. «Berak ez zuen haurrak negozioan hasterik nahi eta, beraz, ikasketetara bideratu zituen». Rafa eta Iñaki semeek, ordea, urrats berak jarraitzeko asmoa azaldu zioten.

## TRANSMISIO GOZOA

Tradizioz, herriko erdigunean kokatutako gozotegietan egin izan dute lan gozogileek. Horrela, XVII. mendeaz geroztik Tolosako Kale Nagusian dago, gaur egun gorrotxategitarren gozotegia dena, Plaza Zaharreko sarreran. 1925ean, bere aitona Matias Gorrotxategik hartu zuen lokala. 14 urte zituela, familiako negozioan ikastera sartu -orduan, bere aita Joxe Mari zen jabea-, eta gozogile izateko ametsa bete ahal izan zuen Gorrotxategik.



Tolosako Udalak omenaldia eskaini zion Gorrotxategiri, 2008an. JOXEMI SAIZAR

Bere ezagutza aberasteko asmoz, Donostiako, Iruñeko eta Miarrizteko gozotegi entzutesuetan ere aritu zen lanean. Katalunian, Sabat maisu handiaren gozogintza eskolan ikasle izan zen. Baina, bereziki, familiako negozioari heldu zion, kalitate eta ospe handia emanez, «euskal gozogintzan erreferentzia izatera heldu arte»; tartean, *Xaxu* izeneko gozo berritzailea sortu zuen. Izena San Blas auzoko Sasueta baserrian jaiotako gozotegiko langile baten ezizenetik dator. Baina, ez hori bakarrik. Gabonetan ohikoak diren turroiak, teilak, zigarrotxoak eta txokolatategi ugari ere sortu zituen.

Jaki berritzaileak sortzeaz harago, «gozogintzan lanean aritzen zirenentzat *konfitero* izatera berreskuratzeko lan berezia egin zuen». Pixkanaka, makinak eta elementuak ikuskatzen eta biltzen joan zen, «bere sektorean bakarra den museoa osatu arte».

Ondoren, gozogintzaren historia ikertzeraz igaro zen. Hainbat sari ere eskuratu zituen: Munduko Gozogintza Lehiaketan zilarrezko saria, Euskadi Turismo saria eta Eguzki Lora saria. 65 urte zituela, ez behar handi batek bultzatuta, lantegia seme-alaben esku utzi zuen.

## HERRIAREN ALDE LANEAN

Kultur munduarekin ere lotura estua izan zuen. Joxemiel Barandiaran, Jorge Oteiza eta Mikel Laboa sortzaileekin maiz elkartu zen. Herriari denbora ugari eskaini zion. Zinegotzi izatea proposatu zioten, eta alkateorde izatera heldu zen. Euskarazko haur eskola eta txistu eskola jarri zituen martxan, eta kale garbitzaileei soldata igotzea lortu zuen.

2008an omenaldia egin zion udalak. Egun berean, Tolosako kultura eta gastronomia bizitza islatzen zuten bere argazkiekin osatutako erakusketa bat inauguratu zuten. Aldi berean, Tolosako tradizioen jarraitzaile sutua izan zen. San Joan egunean,

lore sorta eskaintzen zion alkateari. Urtebetez gordetzen zuten, hurrengo urteko San Joan bezperako suan erretzen zen arte.

**BABARRUN KOFRADIA, MUGARRI** Bestetik, paper garrantzitsua izan zuen Tolosako Babarrunaren Kofradiaren sorreran. «Erlazio estua zuen babarrunarekin, dendan, baserriarekin zuen tratua zuzenagatik». 1980ko hamarkadan behera egin zuen babarrunaren salmentak, azokan. Oso merke saltzen zen, eta baserriarek ez zuten interesik salmentarako; kontsumo propiorako soilik ekoizten zuten. Irungo eta Donostiako kofradia gastronomikoen adibideak jarraituz, 1989an, Tolosako Babarrunaren Kofradia sortu zuen, eta lehen lehendakaria izan zen. «Beharrezko ikusi zuen herriko jaki prezia-tua defendatzea».

Herriko kofradiako ordezkari ez ezik, Gorrotxategi, Gastronomiaren Euskal Kofradiako kofrade eta zuzendaritzako kide izan zen, urte luzez. Tolosatik kanpo ere aztarna utzi du. Bere Segurako tartak eta San Sebastian bezperako azkenburuko berezien diseinuak tradizio handiko lanak dira. 2008an, ohorezko kofrade izendatu zuten Euskal Kofradiako ordezkariak. Egun, bere seme Rafa kofradiako gozogilea da, eta bera ere izendatu zuten ohorezko kofrade, 2013an.

Gastronomiaren Euskal Akademiako kide ere izan zen, bere sorreraz geroztik. «Gozogintzari, eta, orokorrean, gastronomiari buruzko ezagutzaren inguruko ekarpen handia egin zuen». Kofradiaren kasuan gertatu moduan, Rafa semea ere gerora batu zen akademiara.

Slow food erakundeko ordezkari ere izan zen. 2015ean, Ohorezko Maisu Gozogile izendatu zuen Basque Culinary Center-ek. «Esker hitzak izan zituen, nahiz eta gogorarazi zuen bera ez zela gozogile sentitzen, *konfitero* baizik». Gaixotasun luze baten ondorioz hil zen, asteartean, eta gaur emango diote azken agurra, Santa Maria elizan, 19:00etan.

## SOSLAIA

### Joxemi Saizar 'Konpiteroa' eta kultur gizon alaia

Tolosako pertsonai garrantzitsua bat joan zaigu: Joxe Mari Gorrotxategi Pikasari. Nagusiki lanbidean nabarmendu bazen ere, beste hainbat alorretan ere eragin handia izan zuena, hainbeste maite zuen bere jaioterrian, Tolosan. Eta euskal kulturaren ere bere lekutxo irabazi zuen.

Aitaren eskutik jaso zuen gozogintza ofizioa, eta bizitza osoa eman zuen horretan, artisa gisa, 1680tik Plaza Zaharreko etxe berean izandako lanbideari utsiz: *konpiteroa*, berari gustatzen zitzaion definizioa, eta bide berriak urratuz. *Xaxu* gozokia izan zen osperik handiena lortu zuena, baina, horrekin batera, teilak, zigarrotxoak, pastelak, tartak, txokolateta, turroiak eta bestelakoak ere moldatu, berritu eta sortu zituen. Eta, atal horretan, ikerketa handia egin zuen, liburuak argitaratuz (*Historia de la confitería y repostería vasca*, besteak beste) eta material eta tresna zahar ugari bilduz. Hortik sortu zuen, 1981ean, Gozogintza Museoa Letxuga kalean bertan. Dietetika produktuak saltzen ere aitzindaria izan zen.

Baina, lehen esan bezala, hau ez zen izan jorratu zuen alor bakarra. Kulturako beste hainbat ataletan ere bere ekarpena egin zion Tolosari, gizon ekintzailea eta ideia onekoa zelako. Zinegotzi izan zen dena debekatuta zegoen Francoren garaian, 1960ko hamarkadan, eta bere ahaleginez atera ziren aurrera, lehen udal ikastola, euskal dantza eta txistu klaseak, besteak beste. Izan ere, dantzaria ere izan zela ez dugu ahaztu behar.

Argazkigintza izan zen bere afizio nagusietako bat, hainbat erakusketa eginez eta sariak irabaziz, bere argazkiekin. Udalak omenaldia eskaini zionean, 2008. urtean, bere lanen erakusketa zabaldua osatu zen Aranburu jauregian. Basque Culinary Centerrek, berriz, 2015ean omendu zuen.

Ez dut Joxe Mariren soslai hau bukatu nahi, pertsona aipatu gabe. Gizon ekintzaile hau alaia eta denen laguna zen, xumea. Erraza zen berarekin egotea, hitz egitea, gertukoa zen, denei irekia.



## IRAGARKI LABURRAK

### Zaintzailea

**Tolosa.** Abuztuaren 18an, ordezkapen baterako, pertsona bat behar da, goizez, adineko bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskaraz jakiteak lehentasuna du. Informazio gehiagorako, deitu 680 45 5167 zenbakira, 17:00etatik aurrera (Miren).

**Tolosaldea.** Uztailean umeak zain-

tzeko prest dagoen 18 urteko neska bat naiz. Interesatuek, deitu 66136 94 28 telefono zenbakira.

### Zerbitzaria

**Tolosa.** Ikatzeta taberna, lanaldi osoan lan egiteko zerbitzari bila dabil. Interesatuek, bidali kurrikuluma *ikatzeta-taberna2003@gmail.com* helbidera, edo deitu 625 70 48 85 zenbakira.

# Askotariko jatorria duten emakumeen lehen topagunea

Amasa-Villabonako Lurgatz talde feministak urtea bete du, eta elkar ezagutzan sakontzeko topaketa egingo dute, Errebote plazan, larunbatean, egun osoz

**Jon Miranda** Amasa-Villabona

Duela urtebete sortu zen Lurgatz talde feminista, eta herriko emakumeek elkar gehiago ezagutu dezaten antolatu dute, Villabonako Emakumeen Lehenengo Topaketa. Askotariko emakumeek osatzen dute herriko mugimendu feminista, baina orain arte zailtasunak izan dituzte jatorri ezberdinetako emakume billabonatarak taldera biltzeko. «Villabonan jatorri eta kultura ezberdinetako emakume asko gaude, eta potentzialtasun hori jarri nahi dugu erdigunean», esan du Nahikari Iturbe Lurgatzeko kideak.

Ez da orain arte horrelako topaketarik egin. «Eskola atarietan egiten dugu emakumeok topo, baina, hor sor daitezkeen harremanetatik aparte, ez dugu sakontzea lortu». Bat egiteko aukera izan dutenetan, ordea, emakumeek parte hartze handia izan dute. Fleming Herri Eskolak, aurten bigarrenez, Kolore Guztiak elkartearekin antolatu duen aniztasunaren eta elkarbizitzaren bigarren festan, adibidez, elkarlanean aritu dira, eta orduan

## VILLABONAKO EMAKUMEEN I. TOPAKETA

**Ekainak 15, larunbata**

**11:30.** Topaketari hasiera emango zaio Errebote plazan. Aurkezpenak eta prestaketa egingo dira.

**12:00.** Errebote plazan tailerrak egingo dira: irakurketa feminista, kartelak, henna tailerra eta zapien erabilera ezberdinak.

sortu zitzaizen, Lurgatzeko kideei lehenengo topaketa antolatzeko gogoia, «emakumeen arteko elkar ezagutza, elkarlana eta aniztasun balioak bultzatzeko».

### ESPAZIOAK KONPARTITZEKO

Orain arte lanketa horretan ezin izan dute nahi bezainbeste sakondu, talde feministarentzat lokal baten beharra plazaratzen jarri dituztelako indarrak. Lurgi Zalakain Lurgatzeko kidearen esanetan, emozionalki gogorra izan da borroka hori, baina, epe ertainera, egoera aldatuko dutenaren esperantza du: «Villabonako emakumeok elkar ezagutzeko eragozpenak ditugula esaten dugu, besteak beste, elkartzeko leku fisiko bat ez du-

**14:00.** Berdura plazan bazkaria: lurralde ezberdinetako emakumeen arteko janari dastaketa. Oharrak: Borondatea baino ez da kobratuko eta norberak bere mahai tresnak eraman beharko ditu.

**16:30.** Emakumeen dantzaldi pribatua Aljibean.

gulako. Txoko bat behar dugu gure proposamenak aurrera eramateko, elkartzeko, guretzako espazio goxo bat edukitzeko eta babestuta sentitzeko. Ezinbestekoa iruditzen zaigu, emakumeok zein egoera bizi dugun ikusita».

Hilabete hauetan, lokal baten faltan, Errebote plaza sinboliko ki okupatu izan dute emakumeek, batzarrak egiteko. Larunbateko topaketa ere bertan egin asmo dute, «emakumeok erdigunean egon nahi dugula aldarrikatzeko». Plazan 11:30etik aurrera ekingo diote topaketari eta, eguerdira bitartean, tailerrak izango dira. Besteak beste, zapien hainbat erabilera ezagutzeko dituzte, Zalakainen iritzi, «ezjakintasun eta aurreiritzi



Aiztondoko feministek Zizurkilen emakume nigeriarrekin egindako saioa. AIURRI

## BEERTOKI-REKIN ELKARLANEAN ARIKO DA LURGATZ

Aisiaren, musikaren eta, orokorrean, bizitzaren ia alor guztietan bezala, gizonen bere egin dute garagardoaren mundua, baina oraingoraino, hegemonia hori apurtzeko asmoz, emakumeak izango dira protagonista Beertoki elkarteak Lurgatz taldearekin batera antolatutako egitasmoan.

Larunbatean, afari-hitzaldi bat

asko dagoelako, gai horren inguruan».

Eguerdian, Berdura plazan bilduko dira, jatorri ezberdinetako jakiak elkarrekin dastatzeko: Mendebaldeko Sahara, Nigeria, Senegal, Maroko eta Mexikoko janari tipikoak egongo dira. 17:30ean, berriz, Aljibera aldatuko da festa. Munduko hainbat musika entzunez, dantzaldi pribatua egingo dute. «Espazio intimoago batean antolatu nahi genuen festa, elkar ezagutzeko eta lehen pauso hori emateko egokiagoa iruditzen zaigulako leku

eta bi kontzertu antolatu dituzte. Villabonako gaztetxean, 19:00etan, Mara bakarlariaren eskutik, kontzertua izango da aurrena, eta ondoren Holy Nuns taldearen rock emanaldia izango da.

Jarraian, Bilbotik bertaratuko da Mar La Txika de la Cerveza. Bere garagardoak aurkeztuko ditu. Afaria pintxo eta mokadu beganoz lagunduta eskainiko dute eta, bitartean, emakumeek garagardoaren munduan bizi duten egoerari buruz hitz egingo du. Afari-hitzaldirako 20 euroan eman daiteke izena, Kale Nagusiko Kaori faktorian.

bilduago bat», esan du Zalakainek. Festarekin jarraitu nahi duenak aukera izango du, iluntzean, Lurgatzek Beertoki elkartearekin elkarlanean antolatu dituen kontzertu eta afari-hitzaldian.

Behin topaketa amaituta, aurrera begira zein gogo sortzen den hausnartuko dute Lurgatzeko kideek. Festetan ere parte hartze aktiboa izango dute feministek eta, norabide horretan, Iturberen esperantza da, «pixkana, Villabonako emakumeen komunitatea zabaltzen joatea».

# Prekarietatearen aurka egingo du Ernaik

**Erredakzioa**

Ernaik, *Bizitzak biziarazi* lelopean, ekitaldiak antolatu ditu herri eta eskualdeetan eta, Tolosaldeari dagokionez, gaur hitzaldia izango da Anoetan, eta bizikleta martxa bihar, Tolosa eta Villabona artean.

Enpleguan, etxebizitza merkatuan eta aisialdian prekarietatea hedatzen ari dela salatu du Erna gazte antolakundeak. *Bizitzak gure neurri*a txostena aur-

keztu du, prekarietateari aurre egiteko proposamenak bilduz, eta mobilizazio kanpaina bat iragarri du, ostegunetik larunbatera bitarte.

Gaur eta bihar herri eta eskualdeetan hainbat egitasmo izango dira eta, hilaren 15ean, Gasteizen, egun osoko egitaraua prestatu du Ernaik. Besteak beste, aisialdia «merkantilizatzen» ari direla salatu du gazte erakundeak. Duela gutxi telebista publikoak apustu etxeen iragarkirik ez

onartzeko erabakia hartu zuen, eta antzeko neurriak eskatu dituzte, arlo publiko zein pribatutik.

Hain zuzen, gaur, Anoetako plazan, Igor Meltxorrek hitzaldia emango du gaiaren inguruan, *Zer dago apustu-etxean atzean?* galderari erantzunez. Bestalde, bihar, ekainaren 14an, bizikleta martxa bat egingo dute, Tolosa eta Villabona artean, 18:00etatik aurrera. Martxa horrek geldialdia egingo du Anoetan.

Larunbatean, Gasteizko Artium plazara biltzeko deia egin diete Euskal Herri osoko gazteei, Ernai antolakundetik. Harrera asanblada egingo dute bertan, 12:00etan, eta tailerrak, jokoak eta bestelako egitasmoak izango dira, *Bizitzak gure neurri*a aldarrarekin bat eginez. Herri bazkaria egingo dute ondoren, eta 19:00etan, *Bizi, urrats bat gazte frontierantz* lelopean, amaiera ekitaldia izango da, egunari bukaera emateko.

## MOBILIZAZIOAK

**Ekainak 13, osteguna**

**19:00.** Igor Meltxorren hitzaldia Anoetako plazan. *Zer dago apustu etxean atzean?* izenburupean.

**Ekainak 14, ostirala**

**18:00.** Bizikleta-martxa: Tolosa-Anoeta-Villabona artean.

**Ekainak 15, larunbata**

**Egun osoz.** Gasteizen prekarietatearen aurkako ekitaldiak.

# Udan ez aspertzeko hamaika aukera Gazte Zuloren eskutik

Ibarrako Gazte Zulo gaztelekuak udako eskaintza zabala prestatu du hainbat adinetako gaztetxoentzat; izena emateko azken eguna ekainaren 21a izango da

**Irati Saizar Artola** Ibarra

Ibarrako Gazte Zulo gaztelekuak uda honetarako hainbat jardura antolatu ditu, 10 eta 16 urte arteko ibartarrentzat. Ekainaren amaieran hasi eta, uztailaren 19ra bitarte, irteera eta askotariko jarduerak egingo dituzte.

Izena emateko azken eguna ekainaren 21ean izango da. Izen emate orriak kultur etxean, Gazte Zulon edota Ibarrako Udalarren webgunean eskura daitezke, eta orri horietan aukera egongo da zein jardueratan apuntatu nahi den aukeratzeko, hau da, ez da zertan jardura guztietan parte hartu beharrik izango; bakarra joateko aukera izango da.

Jardura bakoitza adin tarte jakin batentzat antolatu dute. Beraz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek hiru irteeratan parte hartzeko aukera izango dute: ekainaren 25ean Hernaniko igerrilekura joango dira, eta 5 euroko kostua izango du; uztailaren 1ean, Donostiako hondartzara joatea erabaki dute; uztailaren 8an, Uztaritzeko Wipe Out ur-parkera egingo dute irteera, eta 10 euro ordaindu beharko dira. Uztaritzeko irteerara apuntatzen direnek, udalean baimen berezi bat eskatu behar dute, frantziar estatura bidaiatu ahal izateko.

DBH 1. mailakoei dagokienez, horiek ere hiru jardura izango dituzte aukeran. Lehena, ekai-



Hiru urte daramatza Ibarrako Gazte Zulok herriko gazteenekin lanean. M.IRAOLA

naren 27an egingo dute, eta Zaurutzera joango dira, egunpasa egitera; uztailaren 5ean, Uztaritzeko Wipe Out ur-parkera egingo dute txangoa, horiek ere 10 euro ordaindu beharko dute; azkenik, uztailaren 10ean, Ordiziako Oiangu parkean barbakoa egingo dute, eta 5 euro ordaindu beharko ditu egun pasa egin nahi duenak.

Bestalde, DBH 2. eta 3. mailakoentzat irteera bateratua prestatu dute. Uztailaren 15etik 18ra, Nafarroako Mendigorria kanpenean pasatuko dituzte egunak; egonaldiaren kostua 50 eurokoa izango da.

Azkenik, DBH 4ko ikasleak ere bi gau pasatzera joango dira, uz-

tailaren 3tik 5era bitarte, Hondarribira. Gauak bertako kanpenean pasako dituzte, eta joan nahi duenak 40 euro ordaindu beharko du.

Irteerak izena emateko garaian ordaindu beharko dira, Gazte Zulon bertan.

## AMAIERA FESTA

Ondo pasatzea eta harremanak egin eta sendotzea helburu duen eskaintza zabal honek, uztailaren 19an izango du amaiera. Adin guztientzako festa eguna antolatu dute. Ibarrako plazan egingo dute, eta antolatzaileek bainujantzia eta aldatzeko arropa eramateko eskaria egin diete bertaratuko direnei.

# Belabietako kirol eskaintzan ere, izen ematea irekita

Ekainaren 21era bitarte zabalik izango da udako eskaintzetan izena emateko epea; gimnastika erritmikoan ere apunta daiteke

**I. Saizar**

Ibarrako Belabietako kiroldegian udarako prestatu dituzten eskaintzetan izena emateko epea zabaldu dute. Apuntatzeko azken eguna ekainaren 21a izango da.

Cycling ikastaroak, astelehen eta asteazkenetan, 19:30ean izango dira, edo astearte eta ostegunetan joateko aukera egongo da, 09:00etan edota 19:30ean.

Mantentze gimnastikarako aukera ere zabalik da. Astelehen eta asteazkenetan 09:00etan hasita izango dira saioak, eta indartze ikastaroak astearte eta ostegunetan egingo dituzte, 18:30etik aurrera.

Azkenik, pilateseko ikastaroa antolatu dute. Hori ere astearte eta ostegunetan izango da, 18:30ean.

Kiroldegiko bazkide direnek 25 euro ordaindu beharko dute

ikastaro bakoitzeko, eta bazkide ez direnek 35 euro.

## BESTE AUKERA BAT

Ibarrako kiroldegian izango da beste aukerarik ere. Gimnastika erritmikoko udako eskaintza aurkeztu dute. Ekainaren 17an hasi eta, hiru astetan zehar, elkartzeko aukera egongo da kiroldegian bertan.

Ekainaren 6tik 21era, 15:00etatik 17:00etara izango da saioa; eta, ekainaren 24tik 28ra eta uztailaren 1etik 5era, berriz, 10:00etatik 12:00etara izango dira. Egunero joan nahi ez duenarentzat, aste solteetan apuntatzeko aukera ere jarri dute. Aste bakoitzeko 20 euro ordaindu beharko da. Izena eman nahi duenak [belabieta\\_ke@yahoo.es](mailto:belabieta_ke@yahoo.es) helbidera idatzi beharko du edo, bestela, honako zenbakietako batera deitu beharko da: 657 71 95 33 edo 688 86 33 63ra.



Duela bi urte uztaie eguna ospatu zuten Ibarra. J.MIRANDA

PEUGEOT CARZA GIPUZKOA

KIA NOVOCAR

ALFA ROMEO BERRI MOTOR

Jeep FIAT

CARZA OCASIÓN

INSTALAZIO BERRIAK, ZURE AMETSEN HAIN URBIL EZ ZARA INOIZ EGON  
Instalakuntza berriak Errepide Nazionala 1, Km 416, Iñauti Industrialdean egongo dira.

✉ **GUTUNA**

**Naparraren kasua: aldi baterako parentesi bat**

**E**kainaren 11n, asteartean, 39 urte bete dira gure anaia Jose Miguel Etxeberria Álvarez, Naparra, bahitu eta bortxaz desagerrarazi zutenetik, BVE taldeak errebin-dikatu zuen ekintza batean. 1981eko ekainaren 14an, Alegia-Tolosaldeako plazan (han jaio baitzen gure aita Patxi), bere oroimenezko lehen ekitaldia egin genuen. Bi urte geroago, ekitaldi hau familiaren base-rrian hasi zen egiten. Bertan anaia gogoratzeko monolito bat ezarri zen, eta han, azken hogeita hamabost urteetan, ekainean egin izan dugu omenaldia.

Iazko urteko ekitaldia oso berezia izan zen. 2018ko maiatzean lortu genuen prozedura judiziala abiaraztea, Landetan bigarren indusketa martxan jartzeko.

Une honetara iritsita, gogoratu behar da 2015eko abenduan, CESIDeko agente ohi batek Iñaki Errazkin kazetariari eman zizkion datuei esker lortu zela kasua berriz irekitzea Audientzia Nazionalean (2016ko irailean). Hori dela-eta, 2. zenbakiko Instrukzio Epaitegiko titular Ismael Moreno epaileak erregu-eskaera egin zion Frantziako justiziarri indusketa bat egiteko; horretarako, Paco Etxeberria forentseak egindako peritu-txostenak garrantzizkoak izan ziren, haietan esaten baitzen agente ohiak egindako deskribapenaren arabera, bi toki zehatz izan zitezkeela gure anaiaren gorpuzkiak egoteko toki probablenak.

Frantziako agintari judizialek eta polizialek sei hilabetez egindako lanaren ondoren finkatu zen indusketa egiteko eguna: 2017ko apirilaren 4a.

Frantziako agintariak toki bakar batean zulatzea erabaki zuten, eta bigarren tokian indusketa egitea erabat baztertu zuten. Goizez eta arratsalde bost orduz aritu eta gero, ezer aurkitu ez, eta indusketa lanak amaitu egin ziren. Hori horrela, kasua itxi egin zuten. Irtenbide bakarra gertatzen zitzaigun: legearen eta epaitegien bihurtze borrokan segitzea bazter utzitako bigarren tokian begira zezaten lortzeko.

Eta gure harridurarako, aurkeztu genuen apelazio-errekurtsoa onartu egin zen, eta ontzat eman zituen gure eskaerak; horien artean, erregu-eskaera berri bat egitea Frantziako agintariak, bigarren gune horretan ere indusketa egin zedin. Ezkor jarrita ere, uste genuen bigarren indus-

keta hau 2018ko udazkenean egingo zela, beranduenez ere.

Egunak bazihozten, eta espe-ro genuen deia ez zen iristen. Gure amatxok hasieratik zekien bere etsairik handiena denbora zela. Jakitea eta sentitzea itzaltzen ari zarela, eta ez duzula lortu bizitza oso bateko borrokarekin lortu nahi zenuena: zure ondorengorik eramandako semea berreskuratzea. Joan den azaroaren 29an zendu zen ama. Bi aste lehenago, etxean, hauxe esaten zidan: «Eneko, zer gertatzen ari da? Nik ezin dut gehiago itxaron. Goazen toki hartara eta geronek egingo dugu». Nik esaten nion, «zer ama, pasako gara aurretik baserrietik, aitzurrak hartzeko? Eutsi, ama, eutsi. Etxera ekarriko dugu. Eutsi!».

Eta gaur da eguna, bigarren erregu-eskaera egin eta hamahiru hilabete pasata ere, oraindik ez daukaguna erantzunik.

Aurten, gure ama Celes ez dagoenez, erabaki dugu omenaldi-ekitaldirik ez egitea. Inork ez dezala pentsa horrek esan nahi duenik amore eman dugula. Ezta pentsatu ere. Borrokan segituko dugu, jakitun garelarik, Nazio Batuen Erakundeak aitortu zuen bezala, bortxaz desagerrarazitako biktima baten familiarrak garelara, eta eskubidea daukagula egia jakiteko, justizia eskatzeko, erreparazioarako eta gertaerak errepikatuko ez diren bermea edukitzeko. Beraz, erabaki hau, une honetan ireki nahi izan dugun parentesi bat bezala ulertu behar da.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan gurekin egon diren guztiei. Badakigu beren laguntzarik gabe ez genuela lortuko lortu dugun guztia. Eta badakigu, halaber, parentesi hau ixtea erabakitzen dugunean, beren laguntza guztia izango dela beharrezkoa eta ongi etorria.

**Eneko Etxeberria Alvarez**  
Naparraren anaia

# PSE-EEk hartuko ditu Berrobi eta Larraulgo udalak, larunbatean

Larraulgo kasuan, PSE-EEko zazpi kideek hartuko dituzte karguak eta Berrobin, berriz, sei lagunek emango dute baiezkua; zazpigarren batek uko egingo dio karguari

**J. Miranda / I. Saizar**

Maiatzaren 26an egindako udal hauteskundeetan, Larraulen 19 boto eskuratu zituen PSE-EEk eta, boto baliadunen %5eko langa gaingaituta, Larraulgo Udaleko zazpi eserlekuak eskuratu zituen. Alderdi sozialistako iturriek baieztatu dutenez, larunbatean, hautetsiak kargu hartzeko bilkuran izango dira, eta zinegotzi aktak sinatuko dituzte.

Eneko Andueza Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusia eta Mikel Duran antolaketa idazkaria, aurreko asteazkenean, ekainaren 3an, Larraulgo jarduneko udal ordezkariekin bildu ziren. Larunbatean egingo den osoko bilkuran zazpi kideek kargu hartuko dutela baieztatu zieten, baina beste eskaintza bat ere egin zieten: «Prest daude, uztailan, hiru zinegotzi postu Larrauldarren esku uzteko, hau da, PSE-EEko lau zinegotzi, eta hiru zinegotzi larrauldar egotea». Horrela baieztatu dute, 2015 - 2019 legegaldiko udal zinegotziek.

Proposamenari zein erantzun eman erabakitzeke herri batzarrarekin zuten ostegunean, ekainaren 4an, eta Gipuzkoako PSE-EEk egindako proposamena alboratzea erabaki zuten herritarrek; «herriko inor udal korporazioan ez sartzea», dio herri bileraren aktak. Are gehiago,



Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetako boto kutxak. J. MIRANDA

maiatzaren 26an Larraulen izandako boto zuriak aintzat hartzeko eskatu diete sozialistek. «Udal hauteskundeetako emaitzak ikusita, 95 boto zuriak herri hautagaitzaren aldeko bezala hartuta, PSE-EEk 19 botorekin udalbatzan eserleku bat edukiko luke. Gauzak horrela, zinegotzi sozialistek kargu ez hartzea –dagoien bakarra izan ezik– eta herriko botoen proportzionaltasuna errespetatzen duen batzorde kudeatzaile bat osatzea eskatzen diogu alderdi sozialistari». Aldi berean, beren plana azaltzeko herri bilera bat egin dezan eskatu diote, herritarrek, PSE-EEri. Proposamena idatziz helarazi zioten, astelehenean, baina oraingoz ez dute erantzunik jaso.

Alderdi sozialistako iturriek ez dute baieztatu, euren aldetik, gisa horretako proposamenik egon denik, eta berretsi dute zaz-

pi kideek karguak hartuko dituztela larunbateko bilkuran. 10:30ean hasiko da plenoa.

## SEIK BAEZKOA, BERROBIN

Berrobiren kasuan, alderdi sozialistak 30 boto eskuratu zituen udal hauteskundeetan eta, nahiz eta boto zuriak 218 izan, ez zuten lortu %95era iristerik. Beraz, zazpi eserlekuak eta alkatetza PSE-EEren esku geratu dira.

Berrobiko Udalean jardunean dauden ordezkariak azaldu dute, ez dutela inongo proposamenik jaso sozialisten aldetik. Asteartean egin zuten bilera, udaleko egungo ordezkariak, sozialistekin. Han jakinarazi zieten, PSE-EEkoek, haietako sei kidek sinatuko dituztela zinegotzi aktak, eta zazpigarren kide batek uko egingo diola karguari.

Osoko bilkura 09:30ean izango da, larunbatean.

**Uzturpe Ikastola**

**DBHn hizkuntza klaseak emateko hizkuntz filologoak behar ditugu.**

**Derrigorrezkoa EGA edo baliokidea izatea. Frantses maila kontutan hartuko da.**

Curriculumak jasotzeko epea **ekainaren 17a izango da**, horretarako **curriculumak@uzturpe.eus** helbidera bidali.

**zozketak**

**Atarikideentzat lau sarrera ditugu**

**'Musua' Pirritx, Porrotx eta Marimotots**  
bi sarrera bakoitz zozketan

**Zatozte mozzorrotuta:** Santageda, Inauteria, udako solstizioa, animen gauaz, gabonak, olentzaroa...

Ekainaren 18, asteartea 18:30 • Andoain, Basterao kulturunea.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

**Eneritz Maiz Etxarri** ikaztegieta

Ingurumen zientziak ikasi eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Ornitologia sailean hasi zen lanean Beñat Diaz Yañez (Ikaztegieta, 1991). Orain, urte hasieratik Biobox proiektu pilotuan ari da lanean, Amilotxa eta Kaskabeltza hegaztiekin, eta Saguzarrekin. Proiektuak Trantsizio Ekologikoko Ministerioaren babes du; Fundacion Biodiversidad erakundearen bitartez ari dira.

**Amilotxa eta Kaskabeltza hegaztiekin, eta Saguzarrekin ari zara lanean. Azalduko zenuke zertan?**

Biobox izeneko proiektu berri bat jarri genuen martxan, urtarrilean. Bertan, Gipuzkoan garrantzia duten laborantza lur batzuk hartu ditugu, hau da, sagastiak eta mahastiak, eta betidanik egon diren izurriteak kontrolatzeko beste metodo bat planteatzen ari gara. Kontrol biologikoa izango litzateke. Hori da ideia.

**Txakolindegia eta sagardotegiak aukeratu dituzue, zergatik?**

Gipuzkoan, behinik behin, nekazaritzara bideratzen diren lurretan garrantzia handienetakoa dutenak direlako. Ez bakarrik eremu zabalak hartzen dituztelako, baizik eta diru dezente produzitzen dutelako, eta interesgarriak direlako, sagardoa egiteko eta txakolina egiteko.

**Zein tokitan jarri dituzuen esaterik bai?**

Petritegi, Zapiain, Egiluze eta Ikaztegieta Begiristain sagardotegietan, eta txakolindegietan, berriz, Ameztain, Talai Berrin, Arbelan eta K5-en.

**Animalia horiek izurriteak kontrolatzeko balio omen dute. Zein da gaurko egoera?**

Asteko, esan, intsektu dezente daudela izurritea eragin dezaketenak, baina garrantzitsuenak bi tximeleta dira: Carpocapsa deitzen zaiona, sagastietan, eta ma-



Beñat Diaz ornitologoa, ikaztegieta baratzeko parkean jarria duen Saguzarren babes-kutxa atzean duela. E. MAIZ

# «Izurriteak kontrolatzeko beste metodo bat planteatzen ari gara»

## BEÑAT DIAZ YAÑEZ ORNITOLOGOA

Ikaztegieta gustuko du hegaztien mundua, eta urte hasieratik Aranzadiren Biobox proiektu pilotuarekin ari da lanean.

hastietan, berriz, *Lobesia botrana*. Carpocapsak sagarrari eragiten dion harra jartzen du, eta *Lobesia botrana*ri, mahats mordoa- ren sitsa esaten zaio. Borroka gehien bi tximeleta hauen kontra egiten da, baina badaude beste hainbat intsektu kalteak eragiten dituztenak. Ikusi da, harrapakari naturalak direla txoriak eta saguzarrak. Txori asko daude, eta horien artean txori intsektu jaleak bereizi behar ditugu. Horien artean, besteak beste, Kaskabeltzak

eta Amilotxak ditugu. Saguzarrak, berriz, esan dezakegu, ia denak direla intsektu jaleak.

**Lehen baino izurrite gehiago daude orain?**

Guri kontatu digutenagatik, ikusi da Carpocapsa ugaritzen ari dela. Izan daiteke sagasti gehiago daudela—Gipuzkoan ugaritzen ari dira—, baina, gehienbat, esaten da gero eta argi kutsadura gehiago dugulako dela. Hiri eta herrietan geroz eta argi gehiago dago, eta horrek eragiten du tximeleta-

ren aktibitatea ugaritzea. Hori uste da. Egoera da tximeleta gehiago daudela, eta dezente kalte eragiten dutela. Tratzen ez diren sagastietan, produkzioaren zati handi bat galdu egin daiteke.

**Urtearen arabera ere izango da, ezta?**

Bai. Carpocapsak hiru belaunaldi ditu urtean, gutxienez hirutan agertzen da tranpetan. Hiruretan egin behar da tratamendu sendo bat.

**Animalien egoera zein da?**

Datu zehatzak ez ditugu, baina ematen du gutxitu egin direla. Jarri ditugun kontrolatzaileekin ikusten duguna da, sagasti eta mahasti berrietan, zulo naturalak falta direla. Zuhaitza zaharrik ez dago eta, beraz, zulo naturalik ez dago. Zulo horiek habia

egiteko edota babesleku gisa erabiltzen dituzte. Landaketa berriekin kentzen ari gara, txori hauentzako egoera naturalean aurki daitezkeen zulo horiek. Honenbestez, haien presentzia gutxitzen ari gara. Gure ideia, habia eta babes kutxak jarritz, fauna honen presentzia areagotzea da.

**Hori izango litzateke proiektuaren helburua?**

Bai, presentzia areagotuz, lehenagotzea izango litzateke helburua. Bestetik, animalia hauek nekazaritza ekoizpen hauetan zein zerbitzu betetzen duten ikusi nahi dugu. Eta zenbatu nahiko genuke, ea zenbateraino egiten duen kontrol biologiko bat, bi plaga hauen aurrean. Proiektu pilotu bat da, proba bat, baina, kontrol biologikoa egin nahi bada, metodologia bat ezartzeko erabilgarria izatea nahiko genuke.

**Noiz jarri dituzue habia eta babes kutxak?**

150 habia kutxa jarri genituen otsalean zehar, eta saguzarrenek, martxoan, 30 bat.

**Emaitzak noizko aurreikusten dituzue?**

Txoriak udaberrian umatzen dira, eta gehienek egin dute lehen ume aldia, eta batzuk dagoneko bigarrenarekin ari dira. Saguzarrak, berriz, udako hilabeteetan sartzen dira, eta iraila-urrira bitarte luzatuko litzateke. Hortik aurrera, bildu ditugun datu guztiekin bilketa bat egiten hasiko gara. Ia astero ibiltzen naiz, lursail batetik bestera, gauzak apuntatzen. Negurako datu batzuk edukitzea espero dugu, plazaratu ahal izateko.

**Bakarrik ari zara?**

Lantalde bat gaude. Departamentuko zuzendaria dugu, eta proiektu honen zuzendaritza Maite Laso altzotar ornitologoa darama; batik bat bion artean ari gara. Praktikan ari diren languntza handia ere izan dugu.

atarian jarrita  
Goierriko eta  
Urola Kostako  
Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**Eskelak orain merkeago!**

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €  
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

# Berrehun boluntarioei esker

Igandean mendi lasterkarien bilgune izango dira, Tolosa eta bere ingurunea; 800 korrikalari lehiatuko dira, hiru probatan

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Tolosako Trianguloa plaza izango da, igande honetan egingo diren hiru mendi lasterketen abia-

puntu eta helmuga. T3T Maratoia 09:00etan hasiko da, T2T proba 09:30ean eta Gazte Lasterketa 09:45ean. Antolakuntza taldeko bederatzi kideez gain, 200

boluntario ariko dira lanean, hiru probak nahi bezala joan daitezten. Parte hartzaileak, berriaz, 800 izango dira; horietatik 400 T3T proban, 350 T2Tn eta 50 in-

guru gazteentzako prestatutako lasterketan.

Aurtengo ekitaldian –bosgarrena maratoiarentzat–, Euskal Herriko Txapelketa izango da joanekoan, eta horregatik antolatuko dute Gazte Lasterketa ere, junior eta kadete mailentzat. Berritasun nagusi bat ere txertatu du antola-

kuntzak, dortsalarekin batera, lasterkariei edalontzi berrerabilgarriak banatuko baitizkiete.

Korrikalariak paella jatea izango dute Zerkausion, eta 16:30ak aldera egingo dute sari banaketa, Trianguloan; lehendabizi lasterketena eta ondoren Euskal Herriko Txapelketarena.

## «Podiuma egiteak ilusio handia egingo lidake»

**SARAH UGARTE**  
**MENDI LASTERKARIA**

Sarah Ugarte (Donostia, 1986) bi urte daramatza Tolosan bizitzen. Orain bi urte, min hartu arren, T3T proba amaitu zuen, seigarren eginez. Aurtengoan, denbora eta postua hobetzea du helburu.

**Aurretik egingo duzu T3T proba. Zein oroitzapen dituzu?**

Orain bi urte atera nintzen, eta Uzturreko gurutze inguruan luzazio bat egin nuen klabikulan. Dezenteko minarekin, baina jarraitu nuen eta bukatu nuen. Gero ospitalera joan nintzen eta

hiru hilabetez bajaran egon behar izan nuen. Aurten berriro atera nahi dut, iaz Zegama-Aizkorri lesionatu egin nintzelako, eta ezin izan nuelako atera.

**Eta, zer esango zenuke ibilbideari buruz?**

Ibilbidea oso ondo ezagutzen dut. Tolosan bizi naiz eta egunero joaten naiz leku horietatik. Gogorra da, hiru mendi direlako eta kilometro asko direlako, baina oso ohituta nago eta etxean sentitzen naiz. Ibilbidea ezagutzen baduzu, asko aldatzen da

lasterketari aurre egiteko modua.

**Zein da zure helburua igandeko proba?**

Postua hobetzea, eta baita denbora ere. Orain bi urte sei ordu eta erdi egin nituen, eta hori hobetu nahi dut. Eta podiuma egiteak ilusio handia egingo lidake.

**Podiumerako lehia horretan aurkari zein izan ditzakezun begiratu duzu?**

Oraindik ez dut begiratu, eta normalean ez diot begiratzen horri. Nik beti pentsatzen dut nola egingo dudan nik ibilbidea, eta sentsazioen arabera joaten naiz.

**Aurten hainbat proba irabazi**



ENERITZ MAIZ

**dituzu. Zer nolako denboraldia egiten ari zara?**

Oso kontentu nago. Denbora asko daramat lesionatu gabe, eta orain oso ondo nago fisikoki. Garingo mendi lasterketa, Berastegiko Negu Trail, Urretxuko UZ Trail eta Trail Mallos de Riglos irabazi ditut. Nafarroa Xtrem proban bigarren egin dut, eta

orokorrean nire urte onena dela esan dezaket, proba guztietan podiuma egin dudalako. Zegama-Aizkorri izan naiz eta hor hamalagarren egin nuen, eta oso kontentu bukatu nuen. T3T probaren antza gehien duena da, eta ea igandean zortea dudan, eta Zegama-Aizkorri erakutsitako maila eman dezakedan.

## «Nire helburua gozatzera ateratzea da»

**IÑAKI OLANO**  
**MENDI LASTERKARIA**

Iñaki Olanok (Altzo, 1988) beste behin parte hartuko du T3T proban. Iaz ibilbide motza aukeratu zuen, T2T, proba irabaziz. Aurten hainbat proba irabazi ditu, tartean, asteburuan egin zen Zaldibiako Mendi Lasterketa.

**Nola joan zen irabazi duzun azkena, Zaldibiako Mendi Lasterketa?**

Aurreko astetik nentorren, Zegama-Aizkorri nahiko sufrututa, tripetatik-eta gaizki ibilita, eta

aurreko astea erreperatzen pasa dut. Zaldibiako lasterketa inguruan zenez, Aralarren zehar, itxura polita zuen, eta aspalidanik nuen begiz jota. Bertara joan nintzen, Zegama-Aizkorriko har hori kentzeko. Lasai joan nintzen, eta gero bigarren eta hirugarren egin zutenak aurretik joan ziren. Nik Ganbo eta Aralar alde horiek ondo ezagutzen ditut zortez, eta banekien denbora zegoela, eta atzetik aurrera joan



ASIER IMAZ

nintzen, tripa ondo sentitzen nituela-eta, sentsazio onak berriskuratuz.

**Ez da irabazi duzun lehenengo proba. Nola joan da denboraldia orain arte?**

Aurreko irailean hankeko hezur txiki bat puskatu nuen, eta nahiko buruhauste eman zizkidan. Urtarrila aldera oinarekin normal antzera zapaltzen nuela ikusi nuen, eta Berastegiko Negu Trailera joan nintzen, nola senti-

tzen nintzen ikustera. Min aldetik gustura, ez nuelako izan, baina formaz oso baxu nengoen. Hortik aurrera, dena hobeto joan zen, eta Urretxun eta Arriaranen hirugarren egin nuen. Ondoren, Larraulen, Gabirian, Seguran Goizuetan eta Zaldibian irabazi ditut lasterketak. Zegama-Aizkorriko arazoak alde batera utzita, oso gustura aurtengoarekin.

**T3Trako zer sentsazio dituzu?** Ezagutzen dut, eta hitz handiak

dira. Maratoi bat da, desnibel handikoa eta gogorra. Iaz T2T egin nuen, eta berriro T3T egiteko gogoia nuen. Egia da maratoiak errespetua ematen didala, eta nire helburua gozatzera ateratzea izango da. Denboraldia amaitzen ari da, karrera asko ditut hanketan, eta nahiago dut sentsazio onekin bukatu. Lasai aterako naiz, eta sentsazioen arabera joango naiz. Lasterketaren erditik aurrera badago non eman.

**Ez duzu, beraz, posturen bat buruan.**

T3T proban parte hartzen dutenak maila jakin bat dutenak dira. Gainera, aurten Euskal Herriko Txapelketa izango da, eta parte hartzaileen artean ikusi ditut izen indartsu batzuk, nire aldean onak direnak. Ez noa irabazteko edo podiuma egiteko asmoarekin; hankak lurrean izan behar dira. Hassan Ait Chaou, Beñat Katarain eta Xabi Lete hor aurretik izango direla pentsatzen dut.



## OSTEGUNA, 2019KO EKAINAK 13

### Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria-k Bai Euskarari



ATARIA IRRATIA  
107.6 FM

www.ataria.eus

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L. ko kideak:



berria

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Tolosaldeko  
gizarte  
eragileak

# Jolastearen plazerak adinik ez duenean

Bigarren urtez, Ibarra Martxan eta Mugi Tolosako parte hartzaileek olinpiadak egin dituzte Zumardiaundian



Zazpi taldetan banatuta, 340 pertsona elkartu ziren olinpiadetan. IRATISAIZAR

## Erredakzioa

Jolasteak eta horrek sortzen duen plazerak ez du adinik; hala erakutsi dute, bigarren urtez, Ibarra Martxan eta Mugi Tolosa egitasmoetako parte hartzaileek, elkarrekin egin dituzten olinpiadetan.

Atzo goizean egin zuten hitzordua, Tolosako Zumardiaundian, eta 340 pertsona elkartu ziren, 7 eremutan banatuta, hainbat jardueratan aritzeko.

Petankan, tokan, soka-tiran, aulki-jokoan, paraxutarekin baloia eragiten, ingumarenkin nahiz beste hainbat jolasetan aritu ziren, eta horretarako hainbat laguntzaile izan zituzten: ikastetxeetako gaztetxoak, txaranga eta Herri Kirol Federazio-kideak, gero haien erakustaldiaz gozatu ahal izateko.

Behin jarduera horien guztien txanda amaituta, txorixoa dastatu zuten guztiek, ogiarekin.



Ibarra Martxan eta Mugi Tolosako kideek parte hartu zuten. I.SAIZAR

# OSTEGUNA 13

## AGENDA

### Deialdiak

**Aduna.** Naizen elkartearen hitzaldia, 19:00etan, kultur aretoan, haur eta gazteen transexualitateaz.

**Tolosa.** Bertso musikatuak Orbela tabernan, 22:30ean: Eli Pagola eta Unai Mendizabal. Tomax Lizardi izango da musikaria.

## ATARIA IRRATIA

**09:00-11:00. Pasahitza.** Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, solaslaldia helduekin, Joxemari Iturralderekin Astero liburu bat, Quark zientzia atala eta Karin Van Der Worpekin eleaniztasuna.

**11:00. Hamaiketako.** Anoetaldea, Villabona-Aiztondoko berriak.

**12:00. Entzuteko jaioak.** Musika saioa.

**13:00. Erakutsiz ikasi.** Anoetako herri ikastola.

**16:00. Zebrabidea.** Magazina.

**18:00.** Goizeko onena.

**20:00. Erakutsiz ikasi.** Anoetako herri ikastola.

## 24 KANALA

**13:30** Gaurkoan Tolosaldeko

**16:30.** Hiri baratzea

**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**22:00.** Urrutiajunbe

**22:30.** Ajoarrieroa (Ainhoa Aznares)

**23:30.** Gaurkoan Tolosaldeko.

## FARMAZIAK

### Gaur

**TOLOSA. Egunekoa.**

Jesus M<sup>o</sup> Echeveste Elosegui Gernikako Arbolaren lorategiak, 3 Telefonoa: 943 65 10 40.

**Gauekoa.**

Lourdes Azpiroz Galartza Amarotz auzoa, 9 Telefonoa: 943 67 51 18

## EGURALDIA

### Iker Ibarluzea

**Gaur.** Ezegonkorrago. Arratsaldeko lehen orduak arte, giro eguzkitsua eta epela; 22-24 gradu. Arratsaldeko lehen orduetik aurrera, giroa ezegonkortu. Bero-hodeiak garatu eta arratsalde erdian eta iluntzean ekaitza.

**Bihar.** Egun osoan hodeiak nagusi, eta euri pixka bat. Haizeak ipar-ukitua izango du, eta termometroa zertxobait beherago kokatuko da: eguneko erdiko orduetan 19-21 gradu bitartean joaz goia.

## BERRIA TALDEAK MARKETIN ESTRATEGIA DIGITALAREN ARDURADUNA BEHAR DU

(Erref:19-MD):

Pertsona hau BERRIA TALDEAREN marketin estrategia digitala diseinatu eta kudeatzeaz arduratuko da, eta estrategia horren jarraipena eta neurketak, Talde Estrategikoan parte hartuz eta Taldearen helburuak lortzeko erabakietan eraginez. Estrategia eta negozio ikuspuntua duen pertsona baten bila gabilta, sormena eta ekimena dituen, antolatua, eta taldea dinamizatzeko gaitasuna duena.

### Eskatzen da:

- > Unibertitate mailako ikasketak: Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza, Kazetaritza, Publizitatea eta Harreman Publikoak, Marketina edo antzeko ikasketak.
- > Marketin digitaleko espezializazioa: Social media marketinaren ezagutza, Email marketinarena, eta Web posizionamendua (SEO-SEM).
- > Analitika eta datuen neurketarako tresnen ezagutza.
- > Big Data ikasketak eta ezagutza aintzat hartuko dira, eta horien aplikazioen eskarmentua izatea lehenetsiko da
- > Euskaraz ondo jakin (gutxienez EGA maila) eta ondo komunikatzea.
- > Aintzat hartuko da aurrez marketin estrategia digitalak diseinatzeko eta garatzeko lanetan aritu izana

### Eskaintzen da:

- > Berehala lanean hastea.
- > Lanaldi osoko lan kontratu iraunkorra.
- > Lantokia Andoainen.

Interesa duenak bidali curriculum, 2019ko ekainaren 17a baino lehen, '19-MD' erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: [gizabaliabideak@berriataldea.eus](mailto:gizabaliabideak@berriataldea.eus)